

6.FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure produktua osatzeko prozesuan, guk hartuko ditugu hainbat ardura.

Hasteko, guk badugu sistemak diseinatzeko eta programatzeko gaitasuna ikasketei esker. Beraz, hori izango da funtsezko lehen jardura. Honi esker gure xurgagailuaren sentsoarearen funtzionamendua ahalik eta aurreratuaena izango da.

Behin sistema garatuta, app-aren diseinua eta garapenaz arduratuko gara. Honi esker, bezeroak erosotasuna irabaziko du eta denbora aurreztuko du. App-ak erabilera erraza eta pertsonalizatua izango du eta informazioa emango dio erabiltzaileari, balio proposamena gehiago indartuz.

Jarraitzeko, hurrengo jardura jada garatutako sistema eta app-aren arteko muntaketa izango da. Robotaren hardwarea sistema adimendunarekin eta softwarearekin modu eraginkorrean integratzeko beharrezkoak diren prozesuetaz arduratuko gara.

Illoz aldatzen, harremanen arloaz ere arduratuko gara. Alde batetik, lehengaien horniketa ezinbestekoa dugu produktua garatzeko: aukera ezberdinak aztertu eta hoberena aukeratu, eta behin erabakita hornitzailea, horrekin harremana estutuko dugu.

Hornitzaileekin harreman ona izatea bezain garrantzitsua da bezeroekin eta handizkariekin izatea. Gure produktua ersoten dutenak bai gurekin bai gure robotarekin konten egotea onuragarria da merkatuaren fidelizazioarentzako eta markaren irudia indartzeko.

Ondoren, komunikazioarekin jarraitzeko, sare sozialen eta publizitatearen paperaz arduratuko gara. Ahalik eta informazio baliotsuena transmititzeaz arduratuko gara, erabiltzaileari benetazko sentimendua transmititzeko.

Diruaren arloa ezinbestekoa da enpresaren funtzionamendurako eta horretarako kontabilitatea eta administrazioaz arduratuko gara gu geu.

Azkenik, biltegiaren kudeaketaz arduratuko gara antolatu ezinbestekoa dugu produktuaren ekoizpena errazteko eta kaosa saihesteko.